

ESKULANGINTZA SUSTATZEKO PLANA 2022

HELBURUA :Eskulangintza sektorea sustatzeko programa, lehiakortasuna hobetzeko, eta merkaturatzea eta gizartean duen balioa indartzeko.

ONURADUNAK:

Entitate onuradunak izango dira eskulangintzan aritzen enpresak izango dira, batetik, banako enpresaburuak eta enpresa sozietarioak, eta, bestetik, Gipuzkoako eskulangintza sektorearen ordezkariak entitateak.

Entitate onuradunen baldintzak:

- Eskulangintzako jarduna ohikoa izatea.
- Iraunkorki lanean ari diren langileak 10 baino gehiago ez izatea.
- Gipuzkoak Eskulangintza Tradizional eta Herrikoiaeren Errolda Orokorrean izena emanda egotea, Lehen Atalean.
- Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan alta emanda egotea.
- Laguntzaren onuradun diren entitateek Gipuzkoan izan behar dituzte beren zerga helbide eta sozietate helbidea.

PROIEKTUEN EZAUGARRIAK:

- Eskulangintzako enpresak

- Makineriaren, tresnen, altzarien eta informazioa prozesatzeko ekipoen inbertsioak, baldin eta jarduerarekin zuzeneko lotura badute.
- Web-orriak sortzea eta eguneratzea.
- Gizarte Segurantzaren kotizazioa ordaintzeko kuotak.
- Negozio lokalaren alokairua.
- Kanpo aholkularitza, tailerraren kudeaketa hobetzen laguntzeko.
- Azoketan parte hartzea.

- Eskulangintzako elkarteak

- Eskulangintza sektoreko elkarte edota erakundeek azoka edota eskulangintza lehiaketak antolatzea.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Proiektu bakoitzerako gehieneko diru laguntzaren zenbatekoak:

- Eskulangintzako enpresak

- Makineriaren, tresnen, altzarien eta informazioa prozesatzeko ekipoen inbertsioak, baldin eta jarduerarekin zuzeneko lotura badute: diruz lagun daitekeen kostuaren % 40raino; eskulangintzako lantegi bakoitzeko **gehienez ere 1.500 euro** eman ahal izango dira.
- Web-orriak sortzea eta eguneratzea: diruz lagun daitekeen kostuaren % 90raino; eskulangintzako lantegi bakoitzeko **gehienez ere 1.000 euro** eman ahal izango dira.
- Gizarte Segurantzaren kotizazioa ordaintzeko kuotak: diruz lagun daitekeen kostuaren % 100raino; eskulangintzako lantegi bakoitzeko **gehienez ere 1.500 euro** eman ahal izango dira.
- Negozio lokalaren errentamendua: diruz lagun daitekeen kostuaren % 90raino; eskulangintzako lantegi bakoitzeko **gehienez ere 800 euro** eman ahal izango dira.
- Kanpo aholkularitza, tailerraren kudeaketa hobetzen laguntzeko: diruz lagun daitekeen kostuaren % 90raino; eskulangintzako lantegi bakoitzeko **gehienez ere 1.000 euro** eman ahal izango dira.
- Azoketan parte hartzeko:
 - Gipuzkoatik kanpoko azoketara joateko bada, diruz lagundu daitekeen kostuaren %60 adinakoa izango da dirulaguntza, eta, **gehienez ere, 2.000 euro azokako**. Diruz lagundu daitekeen gastutzat joko da zoruaren eta erakusmahaiaren alokairu faktura, azokaren antolatzaileak egindakoa.
 - Gipuzkoako azoken kasuan, azokan izena emateko kostuaren %80rainokoa finantzatuko da, **gehienez ere, 1.700 euro azokako**.**Eskulangintza lantegi bakoitzari ezingo zaio guztira 5.500 euro baino gehiago eman.**

- Eskulangintzako elkarteak

- Azoka edota eskulangintza lehiaketak antolatzeagatik: % 65eraino finantzatuko da, gehienez ere 15.000 euro azoka bakoitzeko.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA:

- Eskaerak aurkezteko epea: **2022ko maiatzaren 31ean amaituko da.**
- Jarduerak hasteko epea: **2022ko urtarrilaren 1etik aurrera.**
- Proiektuen exekuzio data: **2023ko otsailaren 28an amaituko da.**

Araudi aplikagarria

- Onartutako oinarri arautzaileak eta 2020ko deialdia (GAO, 2020/114. zk.).

Informazioa gehiago Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu: **EKONOMIA SUSTAPENENKO zerbitzua**

Telefonoak:

- Kudeaketa teknikoa: 943 11 22 87
 - Kudeaketa Administratiboa: 943 11 22 18
- sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus